



Intxaur jaietako jai batzordeko hainbat kide, Letaman gaztetxean. INTXAUR JAIK

Intxaur jaiek hamargarren urteurrena ospatuko dute, hazkunde etengabe

Gogo handiz helduko dira intxaurrendotarrak ekaineko azken asteburura, Intxaur jaiak ospatuko dituztelako. Are gogo handiagoz iritsiko dira aurten, hamargarren urteurrena ospatuko baitute. Betiko jarduerekin eta berritasun batzuekin, festak ez du etenik izango ostegunetik igandera.

🔗 Beñat Parra Rodriguez

Noiz joko ote dute goia Intxaur jaiek? Duela hamar urte berreskuratu zituzten Sagastieder plazan egiten dituzten jaiak, eta hamarkada honetan etengabe egin dute gora: egitarau zabalagoa, parte hartzaile gehiago, gazte gehiago, heldu gehiago, haur gehiago eta dena gehiago. Horrela, hamargarren urteurrena ospatzera doazen honetan, COVID-19aren pandemiaren ostetik «egonkortuta» dagoen jai batzordeak

lau eguneko jai indartsuak antolatu ditu aurten ere: «Hamargarren urteurrena dela eta, oso motibatuta gaude», nabarmendu du Manex Mendiburu jai batzordeko kideak.

Hamar urteotan antolatu dituzten Intxaur jaien aurretik, ordea, bazen jaiarik Sagastieder plazan, Kaldero Jaun jaiak hain zuzen ere, auzotar batzuek «hogei bat urtez» antolatu zituztenak, Mendiburuk gogorarazi duenez. Jai haiek antolatzeari utzi eta urte batzue-

tara jai ziren Intxaur jaiak, auzoko jai giroa berreskuratu nahian.

Horrela, hamargarren urteurrenaren bueltan, aitortza egingo diete Kaldero Jaun jaiak antolatzen zituzten auzotarrei: «Txupinazoan, hitza eman nahi diegu, aitortza gisa, hortik gatzelako». Horrez gain, auzoan intxaurren bat ere landatu nahi du jai batzordeak, Intxaur jaien hamargarren urteurreneko lekuko gisa bertan gera dadin.

Aitortza egingo diete Kaldero Jaun jaiak antolatzen zituzten auzotarrei: «Txupinazoan, hitza eman nahi diegu»

Bigarren eszenatokia

Berritasun nagusi gisa, agertoki bakarra izatetik, bi agertoki izatera pasatuko dira jaiak, Mendiburuk azaldu duenez: «Basoa deitu diogu eszenatoki berriari. Agertoki nagusiaren atzealdean egongo da, zuhaitzak dauden eremuan, eta DJ-entzako izango da». Horrez gain, ostiral eta larunbat gauean ogitarteak saltzeko jarriko duten txosna da beste berritasun nagusia.

Jai batzordeko kideak eta jaien inguruan mugitzen diren kuadrilla gehienak gazteak izanik ere, jaiak auzoko heldu zein haurrentzako ere izatea da antolatzaileen helburua, eta, horregatik, haurrentzako eta helduentzako jarduera gehiago sartu dituzte aurtengo egitarauan, azken urteotako eustearekin batera.

Horrela, biharko Intxaur Krosarekin motorrak berotu, eta ostegunearan abiatuko dituzte jaiak, nahiz eta txupinazoa ostiralean izango den. «Horrenbeste hazi dira jaiak, ostegunak hartu duela auzokoontzako egunaren izaera, ostiralean eta larunbatean beste auzoetako jende asko etortzen baita», nabarmendu du Mendiburuk. Jaiak hazi izanarekin «oso pozik» daudela gaineratu du, eta, noski, Intxaur jaietz gozatzerantz animatu ditu herritarrak: «Mundu guztia da ongiatorria!». ●



OSTEGUNA 25

17:00

Petanka eta brilet finalak.

17:30

Apar festa.

18:30

Karrokea.

21:30

Bollodraman'bass eta Gabe DJ-ak

01:30

Musika txosnan.

OSTIRALA 26

17:00

Kingtxa League finala, *green* estadioan.
Haur jolasak, haurtxokoan.
Urdaiazpiko mozketak, Sagasti tabernan.

19:00

Txupinazoa. Matraka elektrotzaranga,
buruhandiak eta ur zezenak.

19:30

Sardina jana, Intxaur tabernan.

21:30-03:30

Basoa: Ax-E, Lyass, Buruberoki eta Patio
Interior DJ-ak.

22:00

Muxtruk erromeria.

23:00

Zezensuzkoa.

00:00

Bingoa.

00:30

Amaia Normal DJ-a.

LARUNBATA 27

10:00

Azoka.

12:00

Haurren karaokea eta
txokolate jana.

14:00

Herri bazkaria.

16:30

Mojitoak, karaokea eta
kuadrilla jolasak.

17:00

Futbolin txapelketa,
Adi tabernan.

19:00

Oliba eta Antxoa
DJ ibiltaria.

21:30-03:30

Basoa: Spaider Kumbia, Dadie, Fresh eta 777
DJ-ak.

22:30

Tatta.

00:00

Bingoa eta ZKN DJ-a.

IGANDEA 28

08:00

Gaupasero argazkia.

11:00

Karate erakusketa.

12:00

Sagardo dastaketa eta
plaza dantzak.

16:30

Mute Zirko ikuskizuna, Cia. Orain biren
eskutik.

18:00

Intxaurgala sari banaketa.

19:00

Presku, Insanal, Anntipatika, Turka,
Aingeruen Aingura eta 0.5L DJ-ak.

00:00

Itxiera.